

Erakusketa Ibiltaria
Natura 2000 Sarea

DBH

NATURA 2000 JOKOA

**“Bizitzeko tokiak,
pertsonentzako tokiak”
erakusketa ibiltaria.**

2009-2010



B TALDEA



EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**



1 Zer da biodibertsitatea?

Jarraian ageri diren baieztapenak egia ala gezurra dira?

- Biodibertsitatea, putzu batean agertzen den igel espezie bateko norbanako ezberdinak dira.
- Biodibertsitatea, putzu batean agertzen diren igel espezie ezberdinak dira.
- Biodibertsitatea, udalerrri batean ageri diren putzu ezberdinak dira.
- Biodibertsitatea, udalerrri ezberdinetan ageri diren igel populazioak dira.
- Biodibertsitatea, herrialde ezberdinetan ageri diren putzuak dira.



2 Biodibertsitateari neurria hartzen!

Jarraian agertzen diren ekosistemei so egin, zein da biodibertsitate handiena duena? Lehenago bete ezazu jarraian ageri den taula, marrazkia begiratu.


Espezie	Izakien kopurua										
	Mirotz urdina	Zapelatz arrunta	Kaskabeltz handia	Elorri beltza	Elorri zuria	Basurdea	Albitz-belar	Txantxangorri	Haritza	Garia	Guztira
A-Basoa											
B-Monolaborantza											
C-Landazabal Atlantikoa											



A





B



C

Monolaborantzak eta landazabal Atlantikoak paisaia gizatartuak dira, gizakiaren esku-hartzearen ondorio dira, baina biodibertsitate maila oso ezberdina aurkezten dute, zergatik izan daiteke?



3 Gure seme-alabak ondaregabekuko ditugu?

► Liburuak, txanponak, etxeak... gure arbasoengandik oinordetu dugun bakarra "gauza" (ondasun materialak) horiek direla uste al duzu? Ziur ezetz. Zein beste ondasun jaso ditugu ondare bezala?



► Gure seme-alabei ondare berdina uzteko gai izango al gara? Zergatik?



Ba al zenekien baso tropikaletan bakarrik, urtean 17000 espezie desagertzen direla deforestazioa dela eta?

BIZITZEKO TOKIAK, PERTSONENTZAKO TOKIAK

4 Biodibertsitatea arriskuan dago!


Espezieen agerpen eta desagertzea Lurreko bizitzaren eboluzioaren prozesu naturala da. Lurreko bizitzaren historian zehar iraungitze masiboak 5 garaitan eman dira. Hauetariko bat duela 65 milioi urte gertatu zen eta dinosauroen desagertzea ekarri zuen. Guztiak kausa naturalen ondorioz gertatu ziren, baina, oraingo honetan gizakia da beste animalia eta landareen desagertzea eragiten ari dena eta desagertzearen erritmoa azkartzen ari dena.

Zer egiten ari gara espezieak desagertzeko? Entzun ezazu animalia horiek kontatzen digutena. Zerk jartzen du beren bizia arriskuan? Hiru ilaran jokora jolastuz ikusiko duzu.


Ameriketatik familia bat etorri zitzaidan bisitan, badirudi hau gustatu zaiela eta nire etxean bizitzen gelditu nahi dutela.

Bisoi Europearra

Mehatxu faktorea:



UFFF, uff, baztertu egiten naute eta ez didate kasurik egiten. Jada nire jabeentzat ez naiz erabilgarria eta beraiekin horrenbeste urte igaro ostean beste batzuegatik utzi naute.




Betizu behia

Mehatxu faktorea:

Denboraldi batean bakean utz gaitzatela behar dugu, guztiok harrapatzen gaituzte (handiak, txikiak, ertainak...), uneoro...

Antxoa

Mehatxu faktorea:



Neska, neguak ez dira lehen bezain hotzak. Geroz eta gehiago gara negua bertan igarotzen dugunak eta horrela jarraituz gero tokirik gabe geratuko gara.

Zikoina

Mehatxu faktorea:

Hauk ez dira giza ekintzaren ondorioz kalteturiko espezie bakarrak. Beste hainbat faktorek biodibertsitatea mehatxatzen dute, beste izaki bizidunen biziraupena korapilatuz.


► Zein giza ekintzek eragiten dute...
...kutsadura?

...habitataren galera eta degradazioa?

...habitataren zatikatzea eta populazioen isolatzea?

...faunan traba eta perturbazioak?

5 Natura 2000 guztiona eta guztiontzat da



Behar duzun informazio guztia 5. moduluko paneletan eta Natura 2000ko "super liburuan" aurkituko duzu.


Eta, Natura 2000 sareak benetan zerbaitetarako balio al du?

Natura 2000 proiektuak ia 20 urte daramatza Europa osoan garatzen. "Super liburuan" aurkezten diren proiektuak ikertu itzazu eta hurrengo galderei erantzuten saiatu ezazu:

► Zen ekintza mota gauzatzen dira Natura 2000 tokietan?


► Zein helburu dituzte?

► Zein onura dakarkie bertako biztanleei? Eta gainontzeko populazioari?



6 Zein proiektu mota da Natura 2000?

Marka itzazu Natura 2000 proiektua definitu eta azaltzen duten ideiak.



BIZITZEKO TOKIAK, PERTSONENTZAKO TOKIAK